

TXILLARDEGIren «LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA»

Aurkezpena

Joseba Leturiaren amets eta zorigaitzak, haren bizinahia, zorion egarria, etsipena dira nobela honen hezur eta giharre. Edozein gizakiren gogo eta grinarik nagusienak, hots: zoriona, maitasuna, egia, askatasuna..., hortxe daude biziki eta mingots adieraziak. Nahiaren eta ezinaren barne-borroka latza. Amets liluragarriaren eta egia gordinaren kontrajarrera. Bizitzaren lege kupida gabea. Itxaropenaren betetasuna eta egiaren hutsune hotza. Bidez doanaren irrika, poza, esperantza batetik; helburua iritsi hondorengo tristura bestetik. Bidea beti da koloretsua, ametsezkoa, polita, irudimenez jantzia, bihotz taupadaz ornitua. Helburua, ordea, ornitu gabea. Ez du lihuririk. Errealitatea biloiz-biloizik, kolore gabea... ona nahiz txarra, bere buruaren betekoa; bera den bezalakoa. Agur bidez doanaren ametsak! Agur haren gaztetasun hezigaitza! Helburua heltzea, piska bat zaharra-go egitea da. Askatasuna moztca. Mundu polit ezezagun batera -nora edo hara- garamatzen abiada gelditzea. Amets-mundua aberastu beharrean, arrazoiaren muga hestuetara iraultzen da dena. Bukaerari, heriotzaren kutsua dario. Ametsak eginkizun direnean, orduan bai zoragarriak! Olatuak, gaztetasun indar menderakaitzez gailurtuak, abiada arroan joan ohi dira. Haitz gogorrek topez egitean lehertzen da, gero, haien indarra... Joseba Leturiak ere, ondo ezagutu du amets mundu hori, baina

baita beste aldea ere. Gaztetasunaren lerak zahartzaroaren etsipenera darama. Bizitzaren legoa, baina, ezin ikasi inoren lepotik. Golpeka-golpeka eta atsekabearen atsekabez, gorriak ikusiz, bere buruz ikasi behar! Eta txarrena, denok garela horretan berdintsu. Ezkontzako aukera hori egitean, oharkabea, bere burua bide baten mende jarri du Josebak. Mutilzahartzarorik ez du ezagutu. «Bere askatasuntxo» bere eskuz mugatu du. Aukera egin ondoren, egunerokotasun berdintsu eta axolagabea murgildua aurkituko da.

Goian laburki aipatu dugun samintasun giro hori, bizitzaren alderdi garrantza baina ez da. Bizitzaren egunerokotasunaren ikuspuntu bat. Edonork izan dezaken bizitzaren alderdirik ilunenetarikoa. Gauzak honela, ekaizpean aztertutik, kezkatu eta oso minbera da bat; eta nahigabezko zama hori nolabait hustu beharra ezinbestekoa da. Asazkaldi batera jotzen du hemen egileak; eta oraingoan LETURIA gizajoa gertatu da pare-parean.

Ikus dezagun, bada, egileak, Leturia eta honen Egunkaria aitzakiatzat hartuz egingo digun bere barne-munduen kontu-ematea.

I. Literatura mota eta nobelaren egitura

Nobela den aldetik, narratibigintza du bere literatura-eremua. Sailkapetzeko orduan, hari-harira datoz LUIS MITXELENAK sarreran idatziriko hitzok: «...mugarri baten antzera lur berrien señaletan eta ezaugarria dugu». Eta aurreraxeago: «Nik ez dut Txillardegi bakarrik ikusten. Txillardegi eta Leturiaren egunkari ezkutua gizaldi berri baten eta gizaldi orren obren aitzindari gisa agertzen zaizkit». Beste aipamen bat ete badu Mitxelena, nobela honen berritasuna azpimarratzeko: «Gizaldi berria -Txillardegi eta bere seme Leturia artzen ditut egia orren lekuko- gurea baiño obrea, jatorragoa, iruditzen zait zenbait aldetatik».

Nobela honetan, lehenagokotan ez bezalako giroa nabari da. Hiri girokoa da lehenengo ta behin. Aurreragoko narratiba-

gintzan, ohitura nobelak ziren nausi, «kostumbrista» horietakoak, alegia. Baserria eta kalea sarri agertzen ziren aurrez-aurre jarriak. Eta jakinal baserria zen beti tokirik onena. Kaléa, berriz, badaezpadakoa, begitan hartua. Hizkuntza txukun eta garbiaren kezka literatura egitearena baino nabarmenago. Aurreko tradizioaren berezitasun hauek zeharo aldendua ikusten dugu Txillardegi. Eten egiten du soka hura. Ez du jarraitzen betiko bidetik. Hautsi egiten du beraganaino zetorren tradizioa. Baina ez omen da berritzaile gertatu. Mugarri bat bezala da LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA.

Lehen pertsonan idatzia dago. Leturia eta idazlea elkarrengandik hurbil daude, lehen pertsonan idazteak adierazten duenez. Mezuaren eta pertsonaiaren artean elkartasun hestu bat dago; orekan daude eta beraz, nobela funtzionala da.

Giroa, gorago esan dugunez, hiritarra du. Eta euskara bera ere horretara egokitzen saiatzen da.

Nobela intelektuala da. Existenzialismo bidetik doa. Hemen ere, euskal literatura idatziaren ezaugarri bat betetzen dela dakugu; berandukoa izatea. Mitxelena, TXILLARDEGI eta LIZARDI aurrez-aurre jarriak, zera esaten digu: «Alferrik billar-tuko duzute beragan (Lizardi-gan) Europa eta mundu guztia dardaratzen asia zen lur-ikararen berririk...»

«Zorioneko gorrieria ordukoa, alde batetik, ari zor baitugu igartuko ez den Lizardi-ren poesia, gure ta ondorengoen atsedentoki paketsu izateko sortua. Baiña ez Leturiak ez Txillardegi ez gaurko nornaik ezteza entzungor egin. Bizibearra eta ezinbizia aurrean ditugu, ezin ditzakegu besterik gabe gure-gana usteak, sinesteak, bizibideak, oiturazkoak direlako bakarrik, zeatz eta astiro esamizatu gabe».

Egitura eta laburpena

Lau aldi ditu egunkariak. Urtaroetan banatua agertzen zaigu. Etorri ere, hari-harira dator banaketa hori, denboraren joan-etorrian izaten baitu egunkari batek bere zera. Mezua eta urta-

roak, gainera, oso hurbil daude elkarrengandik. Urtaroeri herri-senak ematen dien zentzuz baliatzen dela egilea, esan genezake, «gogo-bideetan barrena egiten duen ibilaldiaren» kontu emateko. Lau urtarotetan eta bakoitzari berea emanez iraultzen du bere barne-edukiaren zama garratza.

Udaberria -liburuko «udalena»- da zatirik luzeena. Izadia lagun harturik, bere buruarekiko kontuak garbitzen hasten da Leturia. Orduan baketsu zebilen, baina laster alde egingo dio ba-keak, eta amets munduan, maitasun itsasoan murgildua dagusku Leturia. Zati hau ez da baketsua ez, baina bai koloretsua, erro-mantikoa, polita udaberria bera bezalaxe.

Uda dator gero. Uda ixilla hauxe! Ez du deusik ere esateko. Baretasun baten sartzen da Leturia. Bere ametsak bete ondoren, zoriontsu eta hasturik geratu dela dirudi. «Tristerik esoz irrikan gaudenean idatzi ohi dugu». Beraz, Leturia, garai honetan, ez dago ez tristerik ezta irrikan ere. «Egunkari famatuena idatzi dituztenak -diosku egileak- barne-prolema gogorrak zituzten». Leturiak, orde, ez du tristurarik ez larriminik izan, antza, garai honetan. Haren bihotza idaztera bultzatzen dezaken zirrararik ez, behinik behin. Eta mutu geratu da egunkaria. Egia esan, ixiltasunez hobeto adierazten dira zenbait gauza.

Eta udako ixiltasunaren zergatia azalduz, zurezko pasaleku edo zubitto bat jartzen duela dirudi. Maitasun gorabeherak hain xamurkiro adieraziz, geroxeago esan beharko dituenaren aurrean, zalantzan edo, eten egiten du piska baten haria.

Etenaldi laburraren ondoren, udazkenean gaude. Eta aurrera doa Leturia bere ezkutuko kontuak esaten... Bapatean egia gogor eta gordin bat erortzen zaio lumatik: *Mirenek ez du zoriontsu egiten*. Hortik aurrera, gero gerokoak. Kontu larriak. «Ametsak ez dira tremesak», laguntxo! Eta Leturia hemen dugu, ez erostaka, baina bai atsekabez; «Udalena» irakurriz batera, halako susmo bat sortzen da igarri barik: «Bizitza ezin daiteke hain liluragarria izan». Nahasiagoa, korapilotsuagoa izan behar Leturiaren pasadizu horrek. Eta baita izan ere! Ametsak amets eta us-

teak uste, labur geratzen da bat horretan. Ekaizpean hara ta hona astindua, zigortua dakusgu Leturiaren untzitxo. Bizimoduak bere alderdirik gordinenak erakutsiko dizkio eta zakarki hestutuko du bere esku latzetan.

Eta nobelaren azken zatira heldu gara. Negura.

Maitasunak bere baitan ernerazi duen zorion egarria hase nahi luke. Egunerokotasunetik irten. «(ohituak) Emozio guztiak suntsitzen ditu piskanaka, gelditasuna itsasten dielako; ikararik larrienak epeldu, atsegiñik bizienak kamustu, yoraniñ sakonenak itzaltzen du» (ditu)...

Mirenen azken hitz unkigarriak atzera egiteko zorion jarri dute. Baina ez. Ez entzun egiten dio. Zirt edo zart egin beharrean ikusten du bere burua. Egarriz itotzeko zorian zegoen eta Mirenek ezin zezakeen inondik inora ere hase. Ez Mirenek, ezta beste inork ere. «Zerbait Absolutu bear zuen nere biotzak, Artan atsedena eta atsegiña esateko»... Erliziozkoa da berez gizonaren utsunea, ta ez dauka mundu onetakoaz asetzerik». Eta badoa. Badoa etxetik ihesi, Parisera. Itsumustuan aukeratu bide zuen lehengo bizimodu hori eta jirabira osoa emon nahi du. Giro itogarri horretatik irten. Gogorra da, bai horixe! baina «zertarako eman zait bestela adimenaren argia, billatzeko baizik?»

Parisek bizipoza, gaztetasuna bihurtu diola dirudi. Absolutoren hutsunea da, funtsean, gizonaena; eta «baztergabearen indarra du Parisek. Uriaz nausitu ezin ditekela dirudi, aunditasuna dario orotatik, bizia du gañezka, eta berpiztuta bezela paseatzen da bere kaleetan barrena».

Gogoeta sakonei emana eta bakarrikzeta larrian ageri zaigu Leturia. Azken batez, ibili ta ibili, hango okerretetik horko okerrera, itsu-itsuka ohianean ekinahalak egin ondoren, bidera irten du. Bide onera: Adimen argiaren aurretik, maitasunaren lehentasuna ezagutu du: «Obe da maitatzea ezagutzea baiño. Obea eta egokiagoa.

Eta, egia?

Osorik ez daukat nik iristerik. Eta gutxi al da, izan ere, ar-

gizagi baten bidez Jainkoa badagoena jakitea?»

Altzurain-era doa Mirenengana; bere laguntza behar dute-nengana. Maitasun bidea = zorion bidea. Bere burua inoren zer-bitzuan jartzera doa, bide galduan ibiliz, zorrak pilatu besterik ez baitu egin; Mirenekiko zorrak batez ere. Baina berandutxo hel-du da. Heriotzear aurkitu du Miren. Zoratu beharrean dago Jo-seba eta alde egiten du bigarren ez etxetik. Oraingoan, baina, ez beretzako sendagai bila, Mirenentzat baino. Edozer egingo luke haren alde... Jainkoari otoitz egitera, Ibarluze-ko komentura... Zer edo ha egin behar maitasunak bultzaturik. Eta bide onetik, maitasun lanean bukatzen da Leturia zorigaitzokoaren egunkari unkigarria. Eta gero zer? Egunkaria betiko etenda geratzen da hortxe, baina jakin-minez dagoen irakurlearentzat, albiste triste bat eranstean du Altzurain-go Deiak gizon baten gorpuzkina aurkitu dute Imirioz-ko leitzan, amildegitik eroria edo...

Gaiaren eguna

Gizonaren zorion egarria da, izan, nobelaren azpi-egituran dagoena. Arazo larri eta funtsezko horren inguru-minguru dabil egunkari honen harimataza guztia. Absolutoaren beharra dago alde baterik; eta beronek, irudimenaren bidez elikatzen dituen ametsak bestetik. Gizonak, egarri horri eutsi ezinez, bere mai-teari ezarten dizkio absolutoaren gaitasunak eta erdi-Jainkotu edo egiten du. Hots, haren mugatasuna gaunditzen duen eta ha-renak ez diren jantziz apaintzen du. Hortik sortzen da lilura, bai-na «lilluraren sustraian datza geroko frakasua». Lilura hori, iru-dikeria hutsa baino ez da eta etsipena ekarri ohi du atzetik.

Bidea eta helburuaren ideiaz ere asko baliatzen da egilea ideia nagusia nabarmentzeko eta ornitzeko: «Tarteak sortu, tar-teak asmatu, ibilbideak billatu: onatx agian gizonaren salbazioa... Eldu ez bañan ibilli gaitzen, eten gabe, zorion aldera, bañere bidea bukatzeke (...) Ezin lortu ditckena aukera dezagun, eta orrela etzaigu lilluraren lorea beñere zimelduko...»

Bere buruarekiko kontuak garbitzeko, adimenaren argian jarri du usteona: «Zertarako eman zait bestela adimenaren argia, billatzeko baizik?»

Baina adimena zuzi motel bat baino ez da. Azkenez, zorion bidea bilatzeko, maitasunaren lehentasunez jabetu da. Hortxe, mozkorraldi baten bailegoen, Mirenen osasuna iristeko, hil edo bizi, ekinahalean dabilela bukatzen da Egunkariaren haria.

II.- Forma aldetik

Udalen

1.«Bakarrik» hitza behin eta berriro dator. Ideia hori dela dirudi, hasiera honetan nabarmendu nahi dena. Baina bakarrik *bere borondatez*. Hiri baten erdian, jendez eta zarataz inguratutik izan ohi dugun beste bakardade horren aurrez-aurre jartzen du.

«Eta bai pozik, alegia!». Euskal taxuz, erraz eta egoki adierazia. «Pixkanaka-pixkanaka, zeru-lurraren aundia eta ederra dastatu». Izadia maite duela eta zorion-bidea bilatzean lagun hartzen duela adierazten digu hemen. «Dastatu» aditza, oso ondo dator, baita «denbora alperrik xautu» ere. Guk, hala ere, «denbora alferrik eman» esango genuke. Bere buruari galderak egin eta erantsunez jarraitzen du, bakardadean egin ohi dugunez.

«Pozik nago nere bakartasunean». «Nere» horrek, asierazkortasuna ezarten dio = neuk aukeratua, neuk bilatua. Bakardadea, gogo-lanerako janari bezala agertzan digu, gero. «Edozein gogo-gauza». «Edozein»ek markatu egiten du esanahia, nahi ta nahiezkoa dela bakardadea adieraziz. «Zerubide hau txit da polita». Adjetiboaren graduatzailea lekuz aldatzen du gehiago markatu nahiez edo. = Oso da polita («oso polita da» izango litzateke esaldiaren forma arrunta). Ideia konkretua eta abstraktoa aurrez-aurre jartzen ditu gero: «Zein da polita Zerubide ala beronen parketasuna? Izen arrunta den aldetik, parkea delako besterik gabe ote da polita ala izen berezia, Zerubide den aldetik? Hemen ere, galdera erantzunez, bere buruari bakarriketan dakusgu.

Inguru haren deskribapena oso polita eta olerki kutsukoa da: «Orain esaterakoa...» Adjetiboak ugari dabilta eta egoki Koloreak, formak, hots-hitzak eta abar. «Urmel txiki borobil bat

dut aurrean, nere lagun bakarra». «Borobil» adjetiboari balio adierazkorra ematen dio, ez baitu «biribil» jartzen, forma arrunta hau izanik. «Lagun bakarra» esatean, prosopopeia baten aurrean gaude, laguntzat (adiskidetzat) pertsona ez den zerbait hartzen baitu. «Iturria *apala*», GOROLDIOAK berdez margotua». «Iturburuaren *xiripa etengabea*». Egoki-egoki, ikusten gaudela dirudi. *Xiripa* hots-hitza «etengabe» adjetiboarekin.

Bizitasun handia ematen dio ondoko esaldiei, igidurazentzua duten hitzak erabiliz: «aldakuntza», «dardara», «jauzia», «uraren ispillua urratu», «gainean igerika», «osto-puska ariñak», «otsikarak artuta gisan, gora ta bera mugiarazten». Eguraldiaren deskribapena eginez jarraitzen du. Adjetiboetara jotzen du orain ete eta bizitasun handia ematen dio esanahiari: «Arratsalde ederra gaurko au (...) ta landare-usaia... osasuntsu». Etendura puntuek, hor, arnasa garbia hartzeko geldituena bezala dira.

«Udabarriaren ederra». Herri literaturako forma jatorra hauxe, elipsi ta guzti. Eta berriro lehengo ideia jotzen du: bakardadera. Bere buruarekiko kontuak garbitzera bakardadera. Bere buruari ez-ikusi egin nahi dionak ez du bakarrik egoteko gogorik izaten.

«Nazkatu egin nau munduko lozorroak...» «Nazkatu», «munduko lozorroak», «munduko laukeriak» hari-harira datoz esanahiaren aldetik. «Neure burua aurkitu nai dut, nere gaitzerako bada ere, naizena sakon aztertu eta miazteko! Indartsu adierazten du bere asmoa, aditza orainaldian erabiliz. Hementxe bertan ere ikus genezake Txillardegi-ren ikuspegi berria; aurreko ohitura nobeletan ageri ez ikuspegia. Existentialismo kutsua hartzen diogu hasiera-hasieratik.

«Gaur bezala, geroan ere nere animak nekez goldatutako ildoari jarraitu aal izateko. Egunkari au izango da, bada, nere kezka guzien kutxa». «Goldatutako ildo», baserri giroko irudia da. «Nere kezka guzien kutxa», kutxa baten norbere ondasunak gordetzen dira; batzutan, altxor ezkutak ere bai.

Landetxe jori batek ikutzen dio barrua. Ez polita delako, bere buruarekin konparatuz, kontraste bezala ageri zaiolako bai-

zik. Sustantibo abstraktoez baliatzen da hemen: «baretasuna», «gauzatasuna». «Baretasuna dario etxetxoari bere gauzatasuncan; ez da ezertzen igitzen, eta bere orretan dirau eta dirauke. Tran- kil eta asaldakaitz begiratzen ari da... Ez du biotzik! Nik ba, be- rriz». «Etxetxoa» balio adierazkorrez adierazia dago, maitagarri egiten den zerbait bailitzan. «Bere gauzatasunean» = gauza izatea- ren kualitatea; hitz egoki-egokia «bere» horrek indarra ematen diola. Bere burua eta inguruko gauzak kontrajarriz jarraitzen du: bera pertsona; besteak gauzak. Berak bihotza; orde, zorion ega- rriz bila eta bila... «Eta gaur ere, gauzei alako edertasun-lillura da- rielarik, ez dut zorion arrastorik sentitu, bere eza eta gabea bai- zik». «Darielarik», aditz hau erabiliz, likidoen azaleratze-kualitatea ezarten dio beste gauzei ere. «Kezkatzen ez diren izakiekiko be- kaitz-giro bat sentitzen dut barnean batzuetan. Aien pakea». «Bekaitz giroa», zehatza eta ondo mugatua ez den bekaitz antze- ko zerbait. «Aien pakea», harridura euskal taxuz adierazten du beti, «zein», «zer», «zelako» eta horrelako erdal-moldeko elemen- turik sartu gabe.

«Baña... bekaitz esan al dut? Zergatik?», etendura puntuak balio adierazkorra dute. Beste aldetik, berak esan, atzera jo eta zuzenduz, galderak egin eta erantsunez, bizitasun handia ematen dio mezuari.

«Aundia edo da zoriona, bere falta ain andia da ta», «edo» horrek zehaztu gabe kutsua du = haundia izan behar du. Oso ideia sakona da, beste aldetik, hemen agertzen dena. Eta berriro ere galderak, kezkak eta zalantzak: «Eta zer ere adierazten ez badu...».

Orain, izadiak lagundurik, garbi ikusten du zorinerako jaio dela. «Uriko zarata zela-ta, ez nuen nere biotzaren dei ixilla en- tzun, gor onek». «Ixilla» adjetiboa egoki dator barruko deia adie- razteko eta hiriko zarataren aurrez-aurre jarritz. Eta batez ere «gor onek», bere buruari botatzen dion salakuntza bigun bat di- rudi. Bizkaian eta Gipuzkoan txitean-pitean erabiltzen da aposi- zio adierazkor hau.

Lehen agerturiko ideia berdintsuetara jotzen du. Bakarrik

gaudenean, geure burutazioek gainezka egiten digute. Kezka edo maitasuna norantz harantz tiratxo. «Bakarrik nago, baña neure munduan. Zalapartarena ez da nere». «Neure»k markatu egiten du ondoko hitza, beretasuna emanik. Hitz-jokoetara jotzen du geroxeago: «Zerubideko parkea nere zerubidea». «Auek izango ditut gaugerero nere biotzaren adiskide min eta leialak. Aiei kondatuko dizkiet nere penak oro», proposopeia bat dugu hemen, pertsona bezala, adiskide bezala hartzen baititu bere kuartillak.

«Au poza. Ta au tristura! Au ederrall», lehen esan dugunez, maisuki darabiltza harridurak.

Loturak kenduz, komaz baliatzen da hurrengo esaldian (asindeton). «Bideska txigorretan barrena noa, bada, sastarka ta lore berri-tuen usai ezea betaro-betaro ausnartzen...» «Bideska txigorretan», balio adierazkorra dute hitz hauek. «Sastarka ta lore berri-tuen usai ezea», «sastarka» hitza oso gogoko zait eta adjetiboak ondo aukeratuak daude. «Betaro», berak asmatuak hitza edo dela esango nuke, Azkueren hiztegian ez dator eta. «Beta» = asti, baina hemen adberbio antzera dator.

2. «Baña ezin josi bertan bere arreta ta oarmena», elipsia egiten du. «Txorien txorrotxioak zirala-ta, aur bi eskutik elduta nere ondolik korrika igaro dirala-ta...», asindeton eta molde bereko esaldi txertatuak ditugu aurrean.

Eguraldiaren eta izadiaren deskribapena egiten digu. Gora-go esan dugunez, adjetiboak ugari erabiliz ematen digu hitzez, ikusten duenaren argazkia. Kolorc, formak, igidura agertzen digu. Egunaren agurrarekin batera, kolore more-baltzak. Eta orkestaren musika-soinua ezkoberri batzuen omenez. Izadiaren tristura horretan bizitzaren udaberriari, gaztaroari ezkontzarekin batera egiten zaion agurra edo ez ote du adierazi nahi? Nobelako gaiaren ardatzera geroago ta bizkorrago abiatzen da. Laster hasiko da Mirenekiko maitasun-gorabeherak kontatzen.

Burutazio sakonetan (filosofikoetan) sartzen da ezkontza dela ta. «Eztai-eguna igaro dute oriek. Gaztetasun betearen billa

abiatu-rik, gaztaroa il dute. Sari garestia, egia esan, aukeramenean bai-datza gizonareri izana. Eta ni beldur aukeratzeko. Gogorra da ori». Gertaera bakoitzak zer-esana du harentzat; haien espiluan bere burua ikusten du. Behin aukeratuz gero, aukerakizunik ez. «Damurik ote?».

«Muga, bide, ta joera eman diote gaur beren biziari». Biziki eta sustantibo egokiak darabiltza. «Jaiotzatik eskondu artekoa, ta ezkontzatik eriotzarakoa; orra bizitzaren bi zatiak: autatu aurrekoa, autatu ondokoa».

Burutazio abstraktoetatik konkretoetara jotzen du: «Nigan, oraingo, dena dago ikuskizun». Honetan, nekatx bat alderatu da aurreko iturrira. Iturria, maiteminduen tokia. «Uraren ispillu igi-korren begira egondu da lipar batez». «Ametsetan bezelakoa zuen begirada...». Gazte bat parkean idazten, neskaxa bat zakur haundi bat zaunkaka aldamenean duela. Badoa nobelaren haria zehazten, bideratzen...

3. «Euria oraindik ere!», behar-beharrezko ez denean, aditza kenduz, bizitasuna ematen dio esaldiari; arintasun berezi bat. Eguraldi txarrena edertasun gordin bat nabari du izadian. «Euripena oso eder-ugaria zelakoan, aruntz abiatu naiz; (...) zuzen-zuzenean, «nere» xoko begikora joan naiz» Errepika-teknika darabil eta «nere» hori, komatxo ta guzti, balio adierazkorrez. Euritan urmaelaren irudia ematen digu hitzez jantzirik: «Urmaelaren gañakaldean euriaren onda-ingurutxoak eta iturri-xirriparenak alkarrekin naasten dira, eta ura irakiten ari zela zirudian».

Egoeraren nolakotasuna hobeki adierazteko, adjetiboak batak-bestearen gain jartzen ditu: «Batzutan aize-bala xamur ozkirri batek nere arpegiaren larru oztua musu ezeaz jautu ta iratzarten zuenean (...) «Oztua»k eta «ezea»k elkarrekin kidetasuna dute, semantika aldetik. Gero, hiperbole batera jotzen du dastapen horien edertasuna adierazteko: «Oriek biotz-ziztadak! Aien ondoan atsegiñik gozoena mingots utsa da». Hari berean jarraitzen du, errepika erabiliz: «Nork ikusi du sekulan arbolen igitzea baño

igitze lilluragarriagorik?». Bizidunen kalitateak ezarten dizkio eguraldiari: «Ozkarbi denean *asperen* da bere otsa; goibelaldian, *aubena*».

«Or *zintzoa* lagun, *bideska bustietan* barrena (...); gaur egun fosilizaturiko kontesta batzutan edo izan ezik («artzainora») erabiltzen ez den hitza darabil «txakurra» esateko.

Neskari ondo egokitzen zaizkion adjetiboak jartzen ditu: «Polita iruditut zait, oso polita (...) giro *busti* eta *illun* artan *margore* bizia zen bera, eta *gorri-zuri gozoa* (...)». Kontrastea nabari da eguraldiaren adjetiboen eta neskatzaren adjetiboen artean: iluna bata, et amargo-lore bizia, zuri-gorria bestean.

Neskatxa hartaz galderak eta galderak sortzen zaizkio. Kanpoko deskribapenak utzita, bihotz-mintzaeraz jarraitzen du.

«Gorritzen asi dira urrutiko odei *berunak*»: sustantiboa adjetibo bihurtzen du, koloreagaitik.

4. «(...) ez dakit zenbat orduz» = orduak eta orduak. «Alperrik»: elipsiaz baliatzen da hemen ere, egoki gainera. «Bera», komatxo ta guzti dator, maitemintzen hasia dela adieraziz...

Xabinekin eten egin du alkarrizketa «*ziplo*», «tximistak jota bezala»: hots-hitza, bapatean (derrepente) esateko. «Begiutsa nintzan ni»: euskaraz ere ez dago hain gaizki, baina erdal-kutsua hartzen diot («era todo ojos»). Konparaketa eta metafora batez jarraitzen du; hiperbola ere badagoela emango nuke: «Eremuan eun egunetan egondako ibiltariak ura edango zuen eran, edaten nuen nik bere aurpegi zoragarria». Agurtu orduko, haren irudia zehatz-mehatz aztertut zeukan. «Ezpain *lodieskoteak*», «begi *erabetiak*». Metafora bat dakar, gero: «kristalezko abotsa». Eta maiteminduen arteko harremanetan, mutilak neskari esan ohi dizkion xurikerietan gertatzen denez, hiperbolera jotzen du: «Nolatan ez dira arriak berak ari entzutean urtutzen?». «*Itontzi berritsu* biurtu nau pozak». Beste xehetasun bat ere interesgarria da: Xabinek esan edo egin duenaz ez daki ezer. Konturatu ere ez da egin «bañan eskaratzera iritxi orduko etzegoen gurekin».

Maiteminduen hizkera berezian jarraitzen du, harekin izandako elkarriketa kontatzen lehenengo, eta haretaz bakarriketan gero. Maitasunak jora dabil Joseba: «Geldi bedi eguzkia, eror bitez izarrak (...) eta zer neri ori guzia Mirenen begi argitsuak nere aurrean atsedengarri baditut?».

Borrokan bezala ari dira bere buruarekin: zentzuz jokatzeko aholkua entzuten du alde batetik, eta bihotzaren aginte xamur eta liluragarrien esanera jartzeko bestetik. «Gizonaren xede bakarra bidez eta zentzuki bizitzeko bada, eraman nazatela deabruak». Bihotz-mundua adierazten digu atal hauetan: «Zerurik goreneraño altxatzen nauzu batzuetan, eta infernurik izugarrieneraño egozten bestetan. Egun eta illun zatxazki batera». «Une batean sekulako argitasuna zabaldu ondoren, leeneko *illunbe itora* bihurtzen naiz (...)».

5. Bekaizkeriak ematen dio, eta errenkura sortzen zaio; ikusketa baten ondoren batez ere: «Senargairik ote du Mirenek?». «Suak marraztu du latz ildoak, ta ez du bihotzeko baizik suak ezabatuko» (bihotzeko suak baizik ezabatuko). «Dudaren suleze beltzera aurtiki nau zorigaitzoko nere ikuserak. Jan egingo dizkit orain erraiak kez karen *ar ankerrak*». Bihotzeko atseka-bea oso egoki eta garraztasun gordinean adierazia.

6. Egunak eta egunak Miren ikusi gabe. «Denbora pasa-ala utsunea aunditu, ta bizitzeko gogoa eukitzeko tokirik gabe gelditzen ari nintzan, tristuraren arra zula eta zula zebillen eta». «Tristuraren arra zula eta zula»: herri adierazpide jatorra, errepika teknikaz osotua.

Idatziriko eskutitza aldean darama edozein unetan Mireni eman ahal izateko. «Ta gaur, azkeneko, ikusteko zoriona izan dudanean, dardaratu egin zait barrunbe osoa pozez». Lehen pertsona izan dudanean, esaldi laburretan adierazten ditu bihozka-dak, bere gogoeta eta sentipenak. «Eta ni Homero bera banintz, sentitzen nuenaren laurdena ere ez nioke besteri sentiaraziko. Ura poza nereak». Denborarekin asko baliatzen da Leturia. Den-

borak ez du beti balio berdina izaten. Denbora subjektiboa da hemen adierazten diguna: «Segundu zitzaizkidan miñutuak; eta mendeak ere, nik uste, berdintsu»: elipsia dago hemen, hain maisuki erabiltzen duen teknika. «Betikotasunak bete zezaken bakarrik une artako nere egarri legor idor amurratua». Denboraren erlatibotasuna hemen ere, baina sarritan egin ohi duen bezela, adjetiboak bata-bestearen gain datoz: «nere egarri *legor idor amurratua*». (...) «ura geratu da garaille; eta ni, gauzak pentsatuta zituena, asaldaturik eta oreka galdua». Azken esaldi honetan ere, elipsi bat daukagu.

«Urduri nago, guztiz urduri»: errepika eta graduatzailea, azpimarkatzeko, eta ondoren galdera larria: «Nora joan da leengo nere pakea?».

7. «Bart gogor egin nion Miren, oso gogor»: Gorago esan dugunez, urrats bitan markatzen du adierazi nahi duena; bigarrean, azken golpea edo mailukada ematen diola dirudi: «oso gogor». «Biotzak itz egin zion». Hirugarren pertsonan jartzen du bihotza, berangandik aparte, beretzako arrotz bailitzan. Adimenaren eta bihozkadaren kontrajarrera: «Banekuzen nik au guzia, ta etorriko zitzaizkidan kezka eta artegatasunak; baña ez nion nere adimentuari bear ainbat jaramonik egin, eta gero gero-koak». Oso esatera jatorra «gero gerokoak» hori!

Barne-borrokan dihardu orain ere: alde batetik baketsu eta zentzuz jokatu behar lukela eta bestetik sasi-bakerik ez du nahi: «Lasaitasunean noiz izan zera gizon? Beti damutu zaizu bezperako sasi-pakea. Lasai irauteko jaio al zera?»

8. Bihozkadaz hitz egingo balu bezala, esaldi laburrez eta etenduraz baterik datoz hurrengo lerroak: «Joan egin da Miren. Izetara. Udara igarotzera. Bera zan nere bizia. Ots: ildakotzat dut nere burua». Maiteminduarentzat bestea arnasa bezala da, eta haren faltaz ito beharrean aurkitzen da.

9. Maitemindua dagoen Leturiarentzat, harrigarria da mapa ximple baten bizi-indarra. Hura izango da Mirenen mandatari

bezala. Izeta herritxoa begiz jotzean, zuka hitz egiten hasten zaio, bihozkadaz, esaldi laburrez, harridura markaz eta etendura puntuz adierazkortasuna eman nahirik. «Izeta! Izeta! Izeta! Zugan bizi da Miren. Egutero ikus dezakezu, zoriontsu orrek». Bekaitzez bailegoen hitz egiten dio, «zoriontsu orrek» bokatiko polit hori erabiliz. Deklinabidean ere, pertsonen edo ta bizidunen dagokien forma darabil: «Zugan». «Mapa ots batek alako ugaritasuna gorde lezakenik ezin pentsa nezakean gaur baño leenago, ta maitasuna sentitu ez duenak ezin konpreni dezake». «Edertasuna bide-zerion Izeta izenari. Eztitsa zitzaidan bere doñua, eta atsegin utsa aren letrak banaka irakurtzea...». Oso fina da testo hau.

10. Bere sentipenak kontatzen jarraitzen du: «Atzokoa izan da zalantzarik gabe bere bizitzaren egunik gogoagarriena; ta etzait, alegia, erraz aartzuko. Ez erraz, eta ez nekez ere: Bakarrizketan ohi den bezala, berak esan eta berak zuzendu ere egiten du esandakoa.

«Egun berean inoiz ez bezin zoriontsu, ta inoiz ez bezin zorizaiztoko izango nintzala, norik esan zezakean?».

«Ura ustekabea»: harridura oso jator adierazia.

«Ez dakit zer esan nion. Polita zegoen, adoragarria obe»: bihotzak hitz egiten duenean ez da jakiten zer esaten den ere. Hemen ere, lehenengo esandakoa zuzendu edo ta markatu egiten du: «Adoragarria obe».

«Pozaren pozez etxera nintzan. Miren Altzurainen!»: «Pozaren pozez» herriliteraturaren formak (errepika). «Etxera nintzan», guk «etxeratu nintzan» esango genuke, baina idazle zaharrek sarri jotzen dute forma hauetara; ablatiboaz baliatzen dira Lardizabal eta beste batzuk (Alfonso Irigoien). «Miren Altzurainen»: hemen ere maisuki darabil elipsia.

«Iru ordutegon naiz an, irakurtzen *nuelakoa egiten* (...): oso gogoko zait «irakurtzen *nuelakoa egiten*» esakera hori.

Urduritasuna adierazten du: «Etxean ere egon eziñik kalera

aldegin nuen berriz». Irtenda laister Joanes eta Peru nere lagunak arkitu, ta delako «Cannes Club» orretaruntz abiatu gera oñez». Orainaldi historikoa darabil edo ta gertatu bezain laster idazten du bestela.

«Baita damutu ere»: esaera polita eta herri kutsu handikoa.

Pentsamentuak ihes egiten dio betiko alderantz: «Sartzeaz gifala, Altzurain bētesten gelditu naiz lipar batez: Nun ote dago Miren? Arckin egoteagaitik emango nukeana». «Sartzeaz» oso forma egokia da. «Lipar batez» sarri erabiltzen duen hitza da. «KRESALA»n ere ageri da behin baino gehiagotan. «Betetsi» ez dakit beronek asmatu-rik hitza ez den; Azkue-ren hiztegian, behinik-behin, ez dator...

«Sartu gera ta... Miren dantzaz». Etendura puntuak hari-harira datoz. Elipsiak argazki baten kutsua ematen dio: «Miren dantzaz».

Barruko deskribapena egiten du, gero. Adjetiboetan, margoei dagozkienak dira nausi. Ez dakit nahi barik edo nahita, baina sinisteria bat dugu: «Argi epela negoen pistan» («motela» izango litzakete adjetibo arrunta hor). «Gorrixka» hitzak balio asierazkorra du. «Aren argitasunean Mirenen isla maitatua berezi dut». Egoki-egoki dator, hor, «berezi» aditza. Leturiaren begirada hantxe lekutu da eta beste dantzari guztiengandik berezi egin du. «Isla maitatua» ere ondo aukeraturiko osagarria da «berezi» aditzarentzat. Etendura puntuak ere nabarmendu egiten du une garratz hori. «Zein zurrut mingotsa», ordea, erdal moldez jantzia dagoela esango nuke.

«Exeri egin gera lagunak eta ni. Zertsu ari nintzan ez nekien ordurako». «Zertan ari nintzan...» hobeto legoke nire gustorako, baina. «Milletan» ez dut uste inork esaten duenik. Hamai-katxo bider, makina bat bider eta honelakoak darabiltza herri euskaldunaren ahotan.

«Ni lotsatuta nengoen; baña edozein lotsa baño sakonago ta bortitzagoa zen nere larrimiña: nere biotza iñarrosi duen borti-

tzena». Adjetibo eta sustantibo egokiak darabiltza: «sakonago ta bortitzagoa», «larrimiña», «iñarro» (aditza). Indartsu adierazten du bere erantzuna: «Mirengan josi ditut begiak, *ausarki, etsita dagoenaren eran, txorabio betean zirkiñik egin gabe, beragandik zipitzik aldatzeke*. Miren! (azpi-marrak neureak dira). «Miren!», arridura marka ta guzti, bihotzetik irtendako garrasi bat bezala da; dei larri bat. «Bereala joan dira «Cannes»tik. *Biak batera*» (azpi-marra neurea da). Balio adierazkorra du «biak batera» honek. Amorraren eta etsipenaren ezaugarri argia.

«Nere tristura nabarmen zedin nai ez nuen eta». Guk, «nahi» hori, tokiz aldaturik jarriko genuke honela: «nere tristura nabarmen zedin ez nuen nahi eta».

«Ez-ikusia egin diot»: oso esaera polita ta herrikoia. Errrealismo garratzez agertzen ditu geroko bihozkadak: «Ta nik, *estu-estu*, bihotza guztuz erdiratura, «agur» *motz* bat esan diot, *zearka* begiraturik, eta aalnuen eta *zaharrenik*». Indarra eta garratzasuna darie esaldi hauei. Euskara aldetik, egokiago deritzat «ahal nuenik eta zakarren» esateari.

«Erdi itzal artan bere *begirunea* josi zait *nerean*, tiro bat *ninian bezela*». Bizikiago adierazterik ba ote dago?

«Ta bizitza osoan auxe *agitu*ko zaidala uste dut». Ez dakit Iparaldean ezaguna izango den hitz hau edo idazle zaharretatik hartua izan duen. Berdin esango nuke «trikatu» aditzaz. Dena, dela, Azkueren histegian biak datoz.

«Etxera joan eta afaldu ez. Ezin. (...) Malkorik ez ordea». Elipsia maisuki darabil hemen ere, nobela osoan bezala.

Artegatasuna, atsekabea adierazten digu ondoko lerroetan. Haragi bizian ikutu du bere maitearen leialtasunik ezak, edo ta itxura hutsak; izan ere, oso minbera izaten dira maiteminduak gai hauetan... «Gau osoa joan zait iraulka, asperencz asperen, ta lotan asi eziñean». Artegasuna adierazten duten hitzak darabiltza: «iraulka», «asperencz asperen» (errepika teknika), «lotan asi eziñean». «Bere izena esan dut burukoaren oialean milloi bat al-

diz». «Miren... Miren!!! Beste bat maite duzu... Zer dagiket nik orain zu gabe? Maite zaitut, Miren, maite zaitut. Nola ez naiz gaurdaño konturatu?»: Bihotzetik irtendako suzko geziak dirudite. Bokatiboak, harridura eta galdera markak, etendura puntuak adierazkortasuna ezartzen diete esaldiei. Mailukadak bezala dira, etsipenaren etsipenez eta egon ezinez barru sakonetik irtendako dehiadar larriak.

«Gaueko ordu biak arte-edo piska bat loegin nuen agian»: Ziurtasunik ez du. Horrela lokartu ezinik dagoenean, batek ez du izaten denboraren ideia ziurrik, eta zehatzik. Hortik «ordu biak arte edo», «agian». «Gero zer ere ez, sifegiten dut, ezta minutu batez ere. Ta bai gau minututsua atzokoa»: Elipsiak egoki-egoki hemen ere. Ezezko esaera eta baiezkua kontrajartzen ditu: «Ezta minutu batez ere. Ta bai gau minututsua atzokoa». Berririo azpimarkatzen du denboraren erlatibotasuna. Denborak ez du beti balio berdina: batzutan bizkorregi doa eta atzera ez da bihurtzen; joanak joan. Beste batzutan, ordea, betikotasunean sartuak garela dirudi. Denboraren kezka, nobelan, zehar sarri ageri da.

Azken esaldietan, aurrez-aurre jartzen du bere barruko egoera eta eguraldiena, hots kanpoko egoera. «Orain irribera dago goiza, ta eguraldi biñaka dator. Zertarako? Norentzako biñaka? Asi besterik ez du egin egunak, eta lerregiña nago.

Egun luzea datorkit. Ez bekit, arren, gaua bezin azkengabea izan». Hau da hau gauzak adieraztea! «Irribera dago goiza»: oso esaldi polita. Gero, lehen aipaturiko kontrastea. Denboraren kezka berririo ere: «Egun luzea datorkit». Erregu baten antzekoa irtetzen zaio: «Ez bekit, arren, gaua bezin azkengabea izan». Fintasunez jantziriko esaldia hau xe!

Aztertzaillearen oharra

Pausuka-pausuka, hara ta hona begira, bazterrak arakatzen astiro eta kontuz ihardun dut. Itsu bat, makilatxoarekin ikutuka-ikutuka eta bere pausuen erritmoz bide seguruaren bila dabilen

antzera, ni ere altxor bila ibili naiz. Azkeneraino ezin naiteke heldu lasterka hasita ere. Eta ez du merezi arrapalada baten, ezer ganoraz ikusi gabe aurrera jotzeak. Bego, bada, hortxe!

Hegoaldean gutxi entzun eta irakur daitezken hitz batzuk ere agertzen dira: «atson» = usaina; «idaroki» = inspirar, hacer salir; «ortots» = trumoi; «trikatu» = geratu; «betetsi» = contemplar; «txoil» = guztiz; «aubena» = lamento; «betaro» = as-tiro. Eta abar.

Hala ere, euskara erraza darabil eta jatorra.

Luis Baraiazarra



ESTUDIO
FOTOGRAFICO

ARGAZKARI

*Ezkontzak - Argazki gaiak saldu - Argazki-alaketak
Lauki-ertz ipinketa - VIDEO - Plastifikatzeak
Fotokopiak (Txikitzeak)*

San Miguel kalean, 14
Urrut: 673 0509

AMOREBIETA

Trañabarren-Bloque, 1-4-13
Matiena - Abadiano